


EAE-KO EKONOMIAREN HAZKUNDE AURRERAPENA

EAEko ekonomiaren moteltze arina baieztatu da

Barne produktu gordinaren bilakaera


Urte arteko aldakuntza tasa



Eustatek kontu ekonomikoen aurrerapena, hirugarren hiruilekoari dagokiona, argitaratu berri du. Lehen zenbatespen horren arabera, EAEko barne produktu gordina %2,6 hazi zen epealdi horretan, hots, aurreko hiruilekoan baino hiru hamarren gutxiago. Orobat, 2018ko lehen hiruilekoarekin alderatuta, bizitasunaren galera puntu erdi batera iristen da. Beraz, egiaztatuta geratu da EAEko ekonomia moteltzeko prozesu leun batean murgilduta dagoela. Hala ere, hazkundearen apaltze hori oso hurbil dago Ekonomia eta Plangintza Zuzendari-tzak osatu zuen taula makroekonomikoan aurreikusten zenarekin, non %2,0tik gorako urte arteko aldakuntza tasak iragartzen baitira 2018-2019 epealdi osorako.

Barne produktu gordinaren bilakaera


Hiruhilabete arteko aldakuntza tasa



Iturria: Eustat.

Enpleguaren bilakaera

Urte arteko aldakuntza tasa




Kontu ekonomikoen aurrerapenak adierazten du zerbitzuek eta eraikuntzak oraindik oso emaitza positiboak lortu dituztela, eta BPGaren moteltzea industriaren eskutik iritsi dela, aurreko hiruhilekoetan erakutsi zuen bizitasun nabarmenari eusteko gai izan ez delako. Muga zergen esparruan bota diren mehatxuek, Europako herrialde batzuetan bizi diren tentsioek eta populismoaren gorakadak industria lehiatzen den testuingurua gaiztotu dute.

Hori horrela den arren, enplegu sorrerak ia ez du nabaritu BPGaren apaltze hori eta %2,0ko urte arteko gehikuntza tasa eskuratu zuen hirugarren hiruhilekoan, aurreko epealdian baino hamarren bakar bat gutxiago eta 2015etik izan dituen datuetatik oso hurbil. Horri esker, azken urtebetean, EAEko ekonomiak 18.800 lanpostu garbi gehitu dizkio bere jardunari.

Enpleguaren bilakaera

Hiruhilabete arteko aldakuntza tasa



Iturria: Eustat.